


Oroitidazkia 2010

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA
OGASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA

AURKIBIDEA


1. ZEHAPEN ESPEDIENTEAK	3
2. SUSTAPEN JARDUERAK.....	5
3. ELKARLANA BESTE ERAKUNDE OFIZIALEKIN	7
4. ARAUGINTZA	8
5. MINTEGI, JARDUNALDI ETA BILTZARRETAN PARTE HARTZEA	8




1. ZEHAPEN ESPEDIENTEAK

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak 10 espediente izapidetu ditu 2010. urtean.

Hasitako espedienteen kopurua




Sektoreak



2010ean hasitako espedienteen ibilbidea honelakoa izan da:

📎 LDEAri artxibatzeko proposamena, arau-hausterik antzeman ez delako	3
📎 LBNren eskumena	1
📎 Izapidetze lanetan	6

Espedienteen egoera



Era berean, zerbitzuak 2008. eta 2009. urteetan hasitako 6 espedienteren izapideak amaitu ditu.

Horietatik, 2008an hasitako espedientearen inguruan LDEZk proposamena luzatu dio LDEAri Lehiaren Defentsari buruzko Legeak debekatutako lehiaren jarduera murriztaileak izan zirela ebazteko.

2009an hasitako 5 espedientei buruz:

- 📎 Espediente baten inguruan, zerbitzuak LDEAri proposamena luzatu dio Lehiaren Defentsari buruzko Legeak debekatutako lehiaren jarduera murriztaileak izan zirela ebazteko.
- 📎 Beste 4 espedienteen inguruan, zerbitzuak zehapen espedienterik ez hastea proposatu dio LDEAri.



Horrez gain:

- Aurrera jarraitu du 2007an hasitako espediente baten izapidetzak. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren 2008ko urriaren 29ko Ebazpenak esandakoarekin bat (4/08 Ebazpena, Bizkaiko eta Gipuzkoako Higiezin Jabetzako Agenteak). Halaber, espedientearen eragin zuzena izan dute abenduaren 22ko 25/2009 Legeak, Zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzko Legea egokitzeko zenbait lege aldatzen duenak eta abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuak, elkargoen derrigorrezko ikus- onetsiarenak.
- 2007ko espediente bat dela eta, LDEAk agindutako frogak egin ditu zerbitzu honek.
- LDEAk ezarritako 5 zehapen bete diren zaindu du zerbitzuak.
- Itundutako amaiera izan zuen espediente baten aldeek hartutako konpromisoak bete ote diren zaindu du zerbitzuak. Horren ondorioz, konpromisoak ez- betetzearen bi txosten igorri dizkio LDEAri.

2. SUSTAPEN JARDUERAK

- 2009ko uztailaren 20an eta urriaren 16an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak parte hartu du 1/2002 Legea aplikatzeko kasuak esleitzeko irizpideak zehazteari buruzko Lan Taldearen bileretan. Lehiaren Batzorde Nazionalak (LBN) antolatu zituen bilerak, Lehiaren Defentsarako Kontseiluak aginduta.
- Zerbitzuak honako elkargoen estatutuei buruzko txostena eman du:
 1. Gipuzkoako Albaitarien Elkargo Ofiziala
 2. Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala
 3. Gipuzkoako Erizaintza Kolegio Ofiziala
 4. Euskal Autonomia Erkidegoko Dietista-Nutrizionisten Elkargo Ofiziala
 5. Bizkaiko Erizaintzaren Kolegio Ofiziala
 6. Gizarte Lanetan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Bizkaiko Elkargo Ofiziala




7. Gipuzkoako Industri Ingeniarien Elkargo Ofiziala
8. Higiezin Jabetza-Agenteen Bizkaiko Elkargo Ofiziala
9. Euskadiko Merkataritza Agenteen Kontseilua
10. Arabako Merkataritza Agenteen Elkargo Ofiziala
11. Bizkaiko Merkataritza Agenteen Elkargo Ofiziala
12. Gipuzkoako Merkataritza Agenteen Elkargo Ofiziala
13. Euskal Herriko Nekazaritza Ingeniari Teknikoen elkargo Ofiziala
14. Gipuzkoako Odontologo eta Estomatologo Elkargo Ofiziala
15. Arabako Psikologo Elkargo Ofiziala

📎 Zerbitzuak honako plan hauen inguruan ere eman du txostena:

1. Enpresa Lehiakortasuneko Plana, 2010/2013.
2. EAEko Emakume eta Gizonen V. Berdintasun Plana. IX Legealdirako Jarraibideak. Oinarritzko ildo estrategikoak eta ekonomikoak.

📎 Zerbitzuak azterlan juridiko eta lehiako hau argitaratu eta banatu du formatu digitalean: *Hileta zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Azterlan juridiko-ekonomiko eta lehiakoa.*



3. ELKARLANA BESTE ERAKUNDE OFIZIALEKIN

Lehiaren defentsarako erakundeak

- 2010eko martxoaren 25ean eta ekainaren 9an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak parte hartu du Koordinaziorako Lan Taldeak antolatutako batzarretan. Bertan, elkargo profesionalei, herri zerbitzuetako garabien alokatzeari, itundutako amaierari eta Administrazioari lehiaren gaineko araudia aplikatzeari buruz aritu ziren.
- 2010eko maiatzaren 27an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua 1/2002 Legearen arabera espedienteak esleitzeko irizpidetarako Lan Taldearen batzarrean izan zen. 2009ko maiatzaren 1etik 2010eko apirilaren 30era egindako esleipenak arakatu ziren bilera horretan.
- Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak txostena helarazi dio Lehia defendatzeko arloan eskumena duten erakundeen Lankidetzarako Sarea (REC) Lan Taldeari, hain zuzen ere REC mantendu, garatu eta egitura/edukien ikuskapenaren inguruko txostena.
- LBNk eskatuta, autonomia erkidegoez gaindi edo estatuko merkatu osoan eragina izan duen baina bereziki Euskal Autonomia Erkidegoari eragin dion jarduera bati buruzko txostena emango dugu. Egindako oharrak kontuan izan zituzten eta LBNeke Kontseilura helarazitako ebazpen proposamenean jaso zituzten, zegokion puntuan.
- LBNrekin lankidetzan ikuskapen lan bat egin da Euskal Autonomia Erkidego honetan, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsi zuen Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutako elkarri laguntzeko mekanismoan oinarrituta.

Justizia eta Herri Administrazio Saila

- Sail horrekin lankidetzan aztertu dugu nola aplikatu 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa (Zerbitzuen Zuzentaraua).



4. ARAUGINTZA

Zerbitzuak esku hartu du Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legea izango denaren aurretiko lan juridikoen izapidetzean.

Halaber, hurbil-hurbiletik jarraitu ditu Zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzko Legea egokitzeko zenbait lege aldatzen dituen abenduaren 22ko 25/2009 Legearen izapideak.

5. MINTEGI, JARDUNALDI ETA BILTZARRETAN PARTE HARTZEA

Zerbitzuko teknikariak jardunaldi hauetan parte hartu dute:

- Lehia Euskadin IV Jardunaldia “Los Acuerdos de Distribución ante las normas de competencia”, 2010eko maiatzaren 31n Bilbon izandakoa.
- Lehiaren Defentsarako IV Nazio Jardunaldiak, 2010.eko ekainaren 10ean eta 11n Kanaria Handiko Las Palmasen izandakoa, Lehiaren Defentsarako Kanarietako Zerbitzuak antolatuta.
- Lehia zuzenbideari eta Herri Administrazioetan arautzeari buruzko Biltzarra, 2010eko irailaren 23 eta 24an egindakoa LBNn.

